

Desertia Fest

Ekitaldiak

Mendizabalako azoka esparrua

2026ko irailaren 5a

10:00etatik 22:00etara

5€



Vital Fundazioak Desertia Fest jaialdiaren edizio berri bat bultzatzen du. Jaialdi honek saharar kultura herritarrengana hurbiltzen du artearen, musikaren, gastronomiaren eta parte-hartzearen bidez. **Desertia Elkarteak**, gazte sahararrek osatutako elkarteak, antolatutako jaialdiaren helburua da saharar kulturari ikusgarritasuna ematea, haren ehun artistikoa indartzea eta komunitateen arteko topaguneak sortzea.

Zer aurkituko duzu Desertia Fest-en?

- Te-edalontziak margotzeko tailerra, saharar te tradizionalaren dastaketarekin.
- Dantza, henna eta **Gaf** tailerrak.
- Horma-irudi kolektiboa.
- Saharar elkarte, idazle eta sortzaileekin solasaldiak.
- Emakume sahararren produktuen eta ekintzailtza-proiektuen azoka.
- Zuzeneko musika: **Suilma Aali**, **Yslem Hijo del Desierto**, **Haiyu**, **DJ Eromena**, **Cheikh Reflex** eta **DJ Mo Reflex**.

- Saharar telesail baten proiektzioa.
- Ipuin-kontalaria eta haur txikientzako jolas tradizionalak.

Berritasun nagusia

Aurtengo edizioan **Saharar Pasaportea** izango da berritasun nagusia: esperientzia interaktibo bat, jaialdia zeharkatu, jardueretan parte hartu eta saharar kulturaren barrena egindako bidaia honen oroigarri gisa zigiluak biltzeko aukera emango duena.

Artista gonbidatuekin eta kultur arloko hainbat lankidetzarekin, Desertia Fest berriro ere kultura bizi bat ezagutzeko, partekatzeko eta ospatzeko topagune bihurtuko da.

Sarrerak

Sarrerak hurrengo estekan 5€tan eskuratu ahal izango dira. Animatu izena ematera eta ez geratu pasaportetik gabe!

FESTIBALERAKO SARRERAK